

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Ordiziako Hiri Antolaketako Arauez Auzitegi Gorenak 1995eko urriaren 18an emanako Épaia betetzeari buruzkoa (GHI-044/86-P05).

18851

Pribatuen iragarpenak**TAPICERÍAS LA GRAN VILLA
SOCIEDAD COOPERATIVA**

IRAGARPENA, «Tapicerías La Gran Villa, S. Coop.» delakoa sozietate mugatu bihurtzeari buruzkoa.

18853

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****Zk-5859**

8/1996 LEGEA, azaroaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzena.

Eusko Legebiltzarrek azaroaren 8ko 8/1996 Legea, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

AZAROAREN 8KO 8/1996 LEGEA, EUSKAL
AUTONOMI ELKARTEKO FINANTZENA

Zioen adierazpena

1.- Legearen aurkezpena

Euskal Autonomi Elkartearen Estatutuak berezko ogasuna izateko bide ematen zuen, baina ogasun horrek, benetan indarra izateko, beharrezkoa zuen lege sektorialen bitartez garatzea Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko ekainaren 22ko 12/1983 Legea oinarritzat harturik. Lege honen testua maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza-Dekretuaz bateratu zen, eta, bertan, Euskal Herriko Ogasun Nagusiari dagozkion gaiak jaso dira eta oinarritzko printzipioen legezko arauketa aurreikusi.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

ANUNCIO relativo a ejecución de Sentencia del Tribunal Supremo de 18 de octubre de 1995, en relación con las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ordizia (GHI-044/86-P05).

18851

Anuncios Particulares**TAPICERÍAS LA GRAN VILLA
SOCIEDAD COOPERATIVA**

ANUNCIO relativo a la transformación de «Tapicerías La Gran Villa, S. Coop.» en Sociedad Limitada.

18853

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****Nº-5859**

LEY 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

LEY 8/1996, DE 8 DE NOVIEMBRE, DE FINANZAS DE
LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

Exposición de motivos

1.- Planteamiento de la ley

La previsión estatutaria de que el País Vasco dispone de su propia Hacienda Autónoma precisaba para su plena efectividad el desarrollo realizado, mediante leyes sectoriales, a partir de la Ley 12/1983, de 22 de junio, de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, actualmente texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, donde se recogen las materias propias de la Hacienda General del País Vasco y se prevé la regulación de sus principios básicos mediante ley.

Lehenengo eta behin, honako hauek arautzen zituzten legeak egin ziren: ondareari buruzko errejimena, aurrekontua egiteko eta kudeatzeko ihardunbidea, kontrol eta kontabilitaterako sistema eta tasa eta herri-prezioak. Hainbat arlo, beraz, arauketa orokorraren zain geratzen ziren. Arlo horiek ohiko kudeaketarako unitate organikoak lotzen zituen elkarren artean, politika finantzarioaren gaiak diren aldetik: Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren errejimena, zorpetze-errejimena eta bermeak emateko errejimena. Arlo bakoitzak behar dituen arauen kopurua mugatua denez, testu bakar batean jasotzea erabaki da.

Beraz, lege honen bidez Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren legegintza-garapena burutzen da. Onartutako legeen multzoak, antolamendu juridikoaren esparru berezi hau egituratzen du, bidezko izan daitezkeen aldaketa partzialen edo alderdi partikularren arauketaren kaltetan gabe.

2.- Euskal Herriko Diruzaintza Nagusia

I. tituluan, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren errejimenez gain, bestelako gaiak ere arautzen dira. Gai horiek, Diruzaintza Nagusiaren parte edo eragiketak ez badira ere, lotuta daude zuzenean Diruzaintzarekin eta antolamenduak ez ditu beste inon arautzen.

Diruzaintza, hertsiki ikusita, Ogasun Nagusiaren helburuetarako finantza-baliabideen multzoa da eta orain arte erregelamenduz araututa zegoen. Izan ere, erregelamendu horietatik hartu dira oinarritzko antolarruak, behar bezala eguneratuz eta aurretik hartutako esperientzia ahaztu gabe. Funtsezko asmoa arauketa eta zuzendaritza bakarra ezartzea da, biak sail beraren barruan sartuz, baina jokaera eta kudeaketa autonomiaduna ahalbidetuz, beharrezkoa eta eginkorra denean.

Diruzaintza-eragiketen hatsapenak ezartzen dira. Alderdi aktiboaren aldetik, Administrazio instituzionalaren zenbait erakunde finantzatzea jasotzen da. Gainera, eragiketa horiek finantza-etxeen bidez burutu daitezke, beren funtzioen menpe. Alderdi pasiboaren aldetik, epe laburreko kreditura jotzeko aukera jasotzen da, aldi baterako beharrak sortzen diren uneetan.

Berme eta gordailuei dagokienez, kudeatzaile bakoitzari dagokio fondoaren erantzukizuna, eta Diruzaintza Nagusiaren ardura duen sailaren eginkizuna instrumentala baino ez da.

Aurrekontu-errejimenera buruzko araudian zehaztutakoaren arabera, diru-gerakinak erabiltzeko prozedura arautzen da lehen aldiz, aurrekontua kitatzean geratzen diren emaitzak alegia. Kontuan izanda erabilera hori oso garrantzitsua dela, aurrekontuan zuzenean aurreikusita ez dagoen moduan ekitaldiko emaitzari eragiten baitiote, azkeneko erabakia Gobernu-Kontseiluaren esku uzten da.

Era berean, lehen aldiz arautzen dira Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren menpe ez dauden erakundeei egitekoak diren transferentzia eta ekarpenak, erakundearteko finantza-fluxuei egonkortasuna eta segurtasuna eman nahian.

Promulgadas las leyes relativas al régimen del patrimonio, al procedimiento de elaboración y gestión presupuestarias, al sistema de control y de contabilidad y a las tasas y precios públicos, quedaban pendientes de regulación global una serie de materias cuyo nexo puede encontrarse en la ya tradicional unidad orgánica de gestión, como propias de la política financiera, en su sentido estricto: el régimen de la Tesorería General del País Vasco, el régimen de endeudamiento y el régimen de concesión de garantías. Precizando una normativa cuantitativamente limitada cada una de ellas, se ha optado por recogerlas en un solo texto.

Por tanto, con la presente ley culmina el desarrollo legislativo de la Hacienda General del País Vasco. El conjunto de leyes aprobadas estructura ya esta área especial del ordenamiento jurídico, sin perjuicio de las modificaciones parciales o la regulación de aspectos particulares que puedan efectuarse.

2.- La Tesorería General del País Vasco

Se regula en el Título I el régimen de la Tesorería General del País Vasco, además de otras materias que, aun no constituyendo la Tesorería General ni siendo operaciones de la misma, están relacionadas directamente con ella y no son abordadas por otras áreas del ordenamiento.

La tesorería en sentido estricto, conjunto de recursos financieros destinados a los fines de la Hacienda General, venía regulada con rango reglamentario, ámbito del que se han tomado los principios básicos, incluyendo la actualización procedente a la luz de la experiencia de que ya se dispone. La idea fundamental es establecer una regulación y dirección únicas, situadas en el Departamento responsable del área de actuación homónima, sin perjuicio de su ejecución y gestión descentralizada en los casos en que resulte necesario o eficiente.

Se establecen los principios de las operaciones de tesorería. En su aspecto activo, se incluye la financiación a determinados entes integrantes de la Administración institucional y la posibilidad de efectuarlas con entidades financieras, de forma subordinada a sus funciones. En el aspecto pasivo se recoge la posibilidad de acudir al crédito a corto plazo, en los momentos en que se presenten necesidades transitorias.

En los aspectos de garantías y depósitos, la responsabilidad de fondo se hace recaer en cada gestor, correspondiendo al Departamento responsable de la Tesorería General una función meramente instrumental.

De acuerdo con lo previsto en la normativa sobre régimen presupuestario, se regula por primera vez el procedimiento de utilización de los llamados remanentes de tesorería, resultados acumulados de la liquidación de los Presupuestos. Teniendo en cuenta la relevancia de dicha utilización, que afecta al resultado del ejercicio de una forma no prevista directamente en los Presupuestos, se atribuye la decisión última al Consejo de Gobierno.

Se regulan por primera vez las transferencias y aportaciones a determinados entes distintos de la Administración General de la Comunidad Autónoma, tratando de otorgar estabilidad y seguridad a los flujos financieros interinstitucionales.

3.- Zorpetzea

Legearen II. tituluaren helburua zorpetzea arautzea da. Izan ere, zorpetzeak gero eta garrantzi handiagoa hartu du eta funtsezkoa da politika ekonomikoan.

Legeak ohiko irizpideei eutsi die zorpetzea beregatatzerakoan, hau da, merkatuaren egoeraren arabera malgutasuna, eta hartzekodunentzako gehieneko segurtasuna, beren eskubide ekonomikoak bermatuz.

Zorraren arrisku edo kostua bermatzea, gutxitzea edo dibersifikatzea helburu duten eragiketak mugarik gabe onartzen dira, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren interesen babesean. Aukera onena ahalbidetu nahi da, irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera. Hori aurrera eramateko, produktu deribatuak edo beste edozein kontratu-mota erabiliko da, hainbat zorpetze-eragiketari erantzunez.

4.- Bermeak ematea

Bermeak ematea banaka hartuz eta guztizko heinean arautzen da. Ekintza honek Administrazioak sustapen edo interes publikorako dituenak baino askoz finantzabaliabide gehiago mobilizatzeko bide ematen du, eta garrantzi handia lortu du azken urteotan, bai kopuruaren aldetik eta bai produkzio-sistemari, batez ere industri arloari, eragin dion neurrian.

Oraingoan egiten den arauketak bermeak ematean, formalizatzean, kudeatzean eta gauzatzean izandako praktika hartzen du kontuan, eta beharrezko segurtasun juridikoa ematen die bai hartzekodunei bai eta Administrazioari ere.

Lehenengo azken xedapenean aurrekontuaren luzapen-errejimena aldatzen da. Izan ere, indarrean zegoen arauak ez zuen bermeak emateko biderik ematen luzatutako ekitaldian muga agortuta zegoenean. Egoera hori salbuespena zen luzapen-errejimen osoan eta ez zen arrazoizkoa. Bermeak ematea, Ogasun publikoaren beste edozein arlo bezala, ezin da geratzeko arriskuan egon.

5.- Legearen azken zatia

Legea hainbat xedapenek osatzen dute. Besteak beste, honako hauek dira aipagarrienak:

Osakidetza, salbuespenez, garatzen ari den iharduketei buruzko xedapen gehigarri bat sartzen da. Izan ere, zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, autonomia berezia dauka, bai eta finantza-arloan ere.

Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko indarreango legezko xedapenen bateratutako testuaren 40. atala aldatzen da, eskubideei buruzkoa, Diruzaintza Nagusiarekin zuzenean zerikusia daukan arloa, alegia. Diru-bilketarako hitzarmen-sistema mantentzen da, garatu beharreko kudeaketa txikiagoa baita Euskal Autonomi Elkarteko erakunde orokorren finantzaketa bereziaren ondorioz. Dena den, Elkartetik kanpoko lurralderako zabaltzen da eta egungo araudia eguneratu eta osatzen da.

3.- El endeudamiento

El Título II de la ley se destina a regular el endeudamiento, aspecto que ha alcanzado gran significación y que resulta esencial en la política económica.

La ley mantiene los criterios tradicionales de flexibilidad en el momento de asumir el endeudamiento, según la situación del mercado, y de máxima seguridad para los acreedores, garantizando sus derechos de contenido económico.

Se admiten sin limitación las operaciones destinadas a asegurar, disminuir o diversificar el riesgo o el coste de la deuda, en defensa de los intereses de la Hacienda General del País Vasco. Se trata de permitir la mejor posición, de acuerdo con criterios económico-financieros. Esto se llevará a cabo utilizando los llamados productos derivados o cualquier otro tipo de contrato, dando cobertura a operaciones determinadas de endeudamiento.

4.- La prestación de garantías

Se regula, unitariamente y con carácter general, la prestación de garantías. Esta actividad permite movilizar recursos financieros muy superiores a los propios de la Administración disponibles para fines de fomento o interés público y ha alcanzado gran importancia en los últimos años, tanto por su volumen cuantitativo como por la incidencia que ha tenido en el sistema productivo, especialmente en el sector industrial.

La regulación que se hace tiene en cuenta la práctica llevada a cabo en la concesión, formalización, gestión y ejecución de garantías, otorgando la seguridad jurídica necesaria tanto a los acreedores como a la actuación de la propia Administración.

En la disposición final primera se modifica el régimen de prórroga presupuestaria en este aspecto, ya que la norma actual impedía la prestación de garantías cuando en el ejercicio prorrogado ya se hubiera agotado el límite, lo que constituía una excepción en todo el régimen de prórroga y carece de justificación. La prestación de garantías, como cualquier otra área de la Hacienda pública, no puede correr el riesgo de paralización.

5.- Parte final de la ley

La ley se completa con diversas disposiciones entre las que merecen ser destacadas las siguientes.

Se incluye una disposición adicional relativa a las actuaciones que, por excepción, viene desarrollando el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, el cual es de una significación, también en lo financiero, que justifica una especial autonomía.

Se modifica el artículo 40 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, relativo a la efectividad de sus derechos, materia que guarda estrecha relación con la Tesorería General. Se mantiene el sistema de convenios para la recaudación, dada la menor gestión a desarrollar, como consecuencia de la especial financiación de las instituciones generales de la Comunidad Autónoma, pero se extiende para el territorio fuera de la misma y se actualiza y completa la normativa actual.

1. atala. - Legearen helburua

Lege honen xedea honako gaiok arautzea da:

a) Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren errejimen eta, horri dagokionez, Administrazioaren aldeko berme eta gordailuen kudeaketa, diru-gerakinak eta Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren menpekoak ez diren erakundeentzako transferentziak eta diru-laguntzak.

b) Euskal Autonomi Elkarteko zorpetze-errejimen.

c) Euskal Autonomi Elkartek bermeak emateko errejimen.

I. TITULUA

EUSKAL HERRIKO DIRUZAINZTA NAGUSIAREN
ERREJIMENA

I. ATALBURUA

EUSKAL HERRIKO DIRUZAINZTA NAGUSIA

2. atala. - Edukia

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eta erakunde autonomiadunen finantza-baliabide guztiek (dirua, baloreak edo kredituak) osatzen dute Euskal Herriko Diruzaintza Nagusia. Finantza-baliabide horiek aurrekontu-eragiketarik nahiz aurrekontuz kanpoko eragiketarik etor daitezke.

3. atala. - Funtzioak

Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren funtzioak honakoak dira: eskubideak sartzea eta Autonomi Elkarteko Administrazioaren eta erakunde autonomiadunen erantzunbeharrak eta indarrengo antolamenduan zehaztutakoak edo aurrekoekin lotutakoak ordaintzea.

4. atala. - Printzipioak

Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren iharduera honako printzipio hauen menpe dago:

a) Puntualitatea, erantzunbeharrei aurre egiterakoan.

b) Segurtasun handiena bai fondo eta baloreen egoeran eta bai eragiketetan.

c) Zuzendaritzaren zentralizazioa, kudeaketa deszentralizatuaren kaltetan gabe.

5. atala. - Fondoaren egoera

1.- Eskudirutan izan beharreko dirua baino ez da gordeko Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren kutxetan.

2.- Kutxetan ez dauden fondoak Espainiako Bankuan irekitako kontuetan, banketxeetan, aurrezki-kutxetan, kreditu-kooperatibetan edo atzerriko kreditu-erakundeetan gordeko dira.

6. atala. - Kutxen eta kontuen kudeaketa

1.- Autonomi Elkarteko Administrazioaren edo erakunde autonomiadunen dirua edo baloreak dauzkaten kutxa eta kontu guztiak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiarenak izango dira.

Artículo 1. - Objeto de la ley

La presente ley tiene por objeto regular las siguientes materias:

a) El régimen de la Tesorería General del País Vasco y, en relación con el mismo, la gestión de garantías en favor de la Administración y de depósitos, los remanentes de tesorería y las transferencias y subvenciones a entes distintos de la Administración General.

b) El régimen de endeudamiento de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) El régimen de prestación de garantías por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TÍTULO I

EL RÉGIMEN DE LA TESORERÍA GENERAL DEL PAÍS
VASCO

CAPÍTULO I

LA TESORERÍA GENERAL DEL PAÍS VASCO

Artículo 2. - Contenido

Integran la Tesorería General del País Vasco todos los recursos financieros, sean dinero, valores o créditos, de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus organismos autónomos, por operaciones tanto presupuestarias como no presupuestarias.

Artículo 3. - Funciones

Son funciones de la Tesorería General del País Vasco ingresar los derechos y pagar las obligaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos, así como las demás establecidas en el ordenamiento vigente o relacionadas con las anteriores.

Artículo 4. - Principios

En el funcionamiento de la Tesorería General del País Vasco rigen los siguientes principios:

a) Puntualidad en la satisfacción de las obligaciones.

b) Máxima seguridad en la situación de fondos y valores y en las operaciones.

c) Centralización de la dirección, sin perjuicio de su gestión descentralizada.

Artículo 5. - Situación de los fondos

1.- Sólo el dinero que deba mantenerse en efectivo se situará en las cajas de la Tesorería General del País Vasco.

2.- Los fondos no situados en cajas se depositarán en cuentas abiertas en el Banco de España, en bancos, en cajas de ahorros, en cooperativas de crédito o en entidades de crédito extranjeras.

Artículo 6. - Gestión de cajas y cuentas

1.- Todas las cajas y cuentas que contengan dinero o valores de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus organismos autónomos se denominarán como propias de la Tesorería General del País Vasco.

2.- Diruzaintza-arloan aginpidea daukan sailari honakoak dagozkio:

a) kutxa eta kontu guztien iharduerari buruzko jarraibideak ematea,

b) kutxak sortzea eta kentzea baimentzea, bai eta kontuak irekitzea eta ixtea ere,

c) kutxa eta kontuen kudeatzaile guztien iharduera ikuskatzea eta

d) diru-sarrerak eta ordainketak egiteko bide ematen duten kontuak kudeatzea, beste inoren laguntzarik gabe.

3.- Diruzaintza-arloan aginpidea daukan sailak, kontuen baldintza eta kudeaketari buruzko hitzarmenak izenpetu ditzake kreditu-etxeekin.

4.- Autonomi Elkarteko Administrazioiko sailek eta erakunde autonomiadunek dirua sartzeko edo ordainketak egiteko kontuak eta kutxak kudea ditzakete, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

7. atala.- Diru-sarrerak

Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren aldeko zorrak eskudirutan ordainduko dira, erregelamenduz ezarritako modalitate eta prozeduren bitartez, legeetan eta hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

8. atala.- Ordainketak

1.- Gobernuak, diruzaintza-arloan aginpidea daukan sailak proposatuta, aurrekontu-kontzeptuetatik edo aurrekontuz kanpoko kontzeptuetatik datozen fondoak erabiltzeko finantza-plan bat onartzea izango du.

2.- Autonomi Elkarteko Administrazioiko sailek eta erakunde autonomiadunek, diruzaintza-arloko aginpidea duen sailari emango diote sail horrek egin beharreko ordainketei buruz eskatutako datu, aurreikuspen eta dokumentazioa.

3.- Ordainketak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da aurretik horretarako agindua ematea erregelamenduz zehaztutakoaren arabera. Ordainketa-aginduak erabakitzeko aginpidearen barruan Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren aldeko zorrak konpentsatzeko erabakia sartzan da, erantzunbeharrak Ogasunaren kontura direla.

4.- Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren kontura egin beharreko ordainketak zuzenbideak onartzen duen edozein modalitatez egin daitezke, kasu bakoitzerako zehaztutakoaren arabera eta lege honen garapenean hartutako erabakiekin bat etorritik. Ordainketa administrazio-ahalmen bat erabiltzearen ondorioz sortzen bada, ordainketa zein modalitatez egin behar den eta praktikan jartzeko beharrezko diren datuak edo dokumentazioa zehaztu ahal izango dira.

9. atala.- Kreditu-etxeen bitartekotza

Euskal aurrezki-kutxa eta kreditu-kooperatibek eta gainerako kreditu-etxeek bitartekotza-zerbitzuak eman ahal izango dituzte Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren diru-sarrera eta ordainketetan.

2.- Corresponde al Departamento competente en materia de tesorería:

a) dictar las instrucciones sobre funcionamiento de todas las cajas y cuentas,

b) autorizar la existencia y la supresión de cajas y la apertura y cancelación de cuentas,

c) supervisar la actuación de todos los gestores de cajas y cuentas, y

d) gestionar, en exclusiva, cuentas que admitan la realización indistinta de ingresos y de pagos.

3.- El Departamento competente en materia de tesorería podrá concertar convenios con entidades de crédito sobre condiciones y gestión de las cuentas.

4.- Los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos podrán gestionar cuentas, para ingresos o para pagos, y cajas, en los términos establecidos reglamentariamente.

Artículo 7.- Ingresos

Salvo lo dispuesto en las leyes y en la disposición adicional tercera, las deudas en favor de la Hacienda General del País Vasco se pagarán en efectivo, en las modalidades y por los procedimientos establecidos reglamentariamente.

Artículo 8.- Pagos

1.- El Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de tesorería, podrá aprobar un plan financiero sobre disposición de fondos por conceptos presupuestarios y no presupuestarios.

2.- Los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos facilitarán al Departamento competente en materia de tesorería los datos, previsiones y documentación que éste les solicite sobre pagos a efectuar.

3.- Los pagos se realizarán previo mandamiento, en los términos establecidos reglamentariamente. La competencia para dictar mandamientos de pago alcanza a la resolución de compensación de deudas en favor de la Hacienda General del País Vasco con obligaciones a cargo de la misma.

4.- Los pagos con cargo a la Tesorería General del País Vasco podrán efectuarse por cualquier modalidad admitida en derecho, de acuerdo con lo determinado para cada caso y las disposiciones dictadas en desarrollo de esta ley. Cuando el pago se produzca en el ejercicio de una potestad administrativa se podrán establecer los términos en que una modalidad de pago es obligatoria y el deber de facilitar los datos o la documentación necesarios para su práctica.

Artículo 9.- Mediación de las entidades de crédito

Las cajas de ahorros y cooperativas de crédito vascas y demás entidades de crédito podrán prestar servicios de mediación en los ingresos y en los pagos de la Tesorería General del País Vasco.

II. ATALBURUA DIRUZAINZTA-ERAGIKETAK

1. SEKZIOA AKTIBO-ERAGIKETAK

10. atala.– Administrazio instituzionala osatzen duten erakundeak finantzatzea

1.– Gobernu-Kontseiluak, diruzaintza-arloko aginpidea daukan sailak proposatuta, Autonomi Elkarteke Administrazio instituzionala osatzen duten erakundeei kreditu eta aurrerakinak ematea onar dezake, urtebeteko epea gainditu gabe.

2.– Kreditu eta aurrerakinak emateko prozedura eta horien baldintza orokorrak erregelamenduz ezarriko dira, eta diruzaintza-arloko aginpidea duen sailaren ardura izango da kasuan kasuko baldintza bereziak erabakitzea eta formalizatzea.

11. atala.– Aktibo-eskurapena eta gordailu- edo kreditu-eragiketak

Diruzaintza-arloko aginpidea duen sailak finantza-etxeekin baloreak eskuratzea eta gordailu edo kreditu-eragiketak formalizatzea erabaki ahal izango du, 4. ataleko a) eta b) azpiataletan ezarritako printzipioak betez.

2. SEKZIOA PASIBO-ERAGIKETAK

12. atala.– Urtebetetik beherako epeko kredituak

1.– Gobernu-Kontseiluak kreditu-eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du, urtebetetik gorako epea ez bada gainditzen, diruzaintzaren aldi baterako beharrei aurre egiteko.

2.– Eragiketa horiek, diruzaintza-arloko aginpidea duen sailak hitzartuko ditu. Era berean, eta beti ere Gobernu-Kontseiluak onartutakoa betez, kudeatuko ditu eta baldintzak zehaztu ahal izango ditu, aldezturik berreskurapena onartuz eragiketaren baldintzekin bat badator eta finantza-kargan ekonomiak produzitzen direnean edo arriskua murriztu edo dibersifikatzen denean.

III. ATALBURUA ADMINISTRAZIOAREN ALDEKO BERMEAK ETA GORDAILUAK

13. atala.– Jasotako bermeak

1.– Diruzaintza-arloko aginpidea duen sailari dagokio Autonomi Elkarteke Administrazioaren aldeko bermeak gordetzea, kudeatzea, ematea eta itzultzea, horiek egitera behartzen duen araudiak besterik agindu ezean. Berme horiek hainbat modutan eratu daitezke: abaletan, fidantzetan, kausio-aseguru polizetan, balore-gordailuetan eta kontu-oharren bidez edo beste antzekoren baten bidez erregistratutako balore-inmobilizatueta.

CAPÍTULO II OPERACIONES DE TESORERÍA

SECCIÓN 1.ª OPERACIONES DE ACTIVO

Artículo 10.– Financiación a entes integrantes de la Administración institucional

1.– El Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de tesorería, podrá aprobar la concesión de créditos y anticipos, por plazo no superior a un año, a los entes integrantes de la Administración institucional de la Comunidad Autónoma.

2.– Reglamentariamente se establecerán el procedimiento de concesión y las condiciones generales de dichos créditos y anticipos, correspondiendo al Departamento competente en materia de tesorería la determinación de las particulares en cada caso y su formalización.

Artículo 11.– Adquisición de activos y operaciones de depósito o de crédito

El Departamento competente en materia de tesorería podrá acordar la adquisición de valores y la formalización de operaciones de depósito o de crédito con entidades financieras, en la forma que permita el cumplimiento de los principios establecidos en los apartados a) y b) del artículo 4.

SECCIÓN 2.ª OPERACIONES DE PASIVO

Artículo 12.– Créditos por plazo no superior a un año

1.– El Consejo de Gobierno podrá autorizar operaciones de crédito, por plazo no superior a un año, con la finalidad de hacer frente a necesidades transitorias de tesorería.

2.– Estas operaciones serán concertadas por el Departamento competente en materia de tesorería, quien podrá determinar sus condiciones dentro de lo acordado por el Consejo de Gobierno, y las gestionará, pudiendo acordar el reembolso anticipado cuando sea conforme con los términos de la operación y se produzcan economías en la carga financiera o se reduzca o diversifique el riesgo.

CAPÍTULO III GARANTÍAS EN FAVOR DE LA ADMINISTRACIÓN Y DEPÓSITOS

Artículo 13.– Garantías recibidas

1.– La custodia, gestión, ejecución y devolución, en su caso, de garantías en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus organismos autónomos, que se constituyan en forma de aval, fianza, póliza de seguro de caución, depósito de valores, inmovilización de valores registrados mediante anotación en cuenta o cualquier otra análoga, corresponde al Departamento competente en materia de tesorería, salvo que la normativa que establezca su obligatoriedad prevea otra cosa.

2.- Besteen gauzekiko eskubideetan dauden bermeei dagokienez, Euskadiko Ondarearen Legean zehaztutakoa hartu beharko da kontuan.

14. atala.- Gordailuak

Autonomi Elkartearen edo erakunde autonomiadunen alde berme gisa egindako eskudiru-gordailuak, eta horien zerbitzuren batean egin beharreko gainontzeko gordailuak, 5. atalean aurreikusitako kutxa eta kontuetan gordeko dira.

15. atala.- Jasotako bermeen eta gordailuan kudeaketa

Autonomi Elkarteko Administraziooko sailei eta espediente bakoitzaren kudeatzaile diren edo aginpidea duten erakunde autonomiadunei dagokie:

a) bermeari edo gordailuari dagozkion ondorioak aitortzea eta

b) 13.1 atalean adierazten den sailari bermeak gauzatzeko eskatzea, eta berme eta gordailuen baliogabetzea edo itzultzea bidezkoa den erabakitzea.

16. atala.- Agiri-ereduak

Berme eta gordailuen agiri-ereduak erregelamenduz ezarriko dira.

IV. ATALBURUA DIRUZAINTZAKO DIRU-GERAKINAK

17. atala.- Nola sortzen diren

Aurrekontuen kitapenetatik datozen eskubide aitortu eta kitatuen eta hartutako erantzunbeharren arteko aldeek osatzen dituzte Autonomi Elkarteko Administrazioaren eta administrazio-erakunde autonomiadunen diru-gerakinak.

18. atala.- Funtzioak

1.- Autonomi Elkarteko Administrazioaren eta administrazio-erakunde autonomiadunen aurrekontuak finantzatzeko baliabide izan ahalko dira diru-gerakinak.

2.- Aurrekontu-errejimenari buruzko araudiaz indarrean dauden xedapenen testu berrituaren 20. atalean adierazten diren eta Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorren legeetan aurreikusten diren ordainketa-kredituei gehikuntzak egin ahal izango zaizkie diruzaintzako diru-gerakinen kontura.

19. atala.- Diru-gerakinak erabiltzeko ihardunbidea

1.- Gobernu-Kontseiluak emango du baimena diruzaintzako diru-gerakinak erabiltzeko, Autonomi Elkarteko Aurrekontuaren jarraipenerako eta kontrolerako aginpidea duen sailaren proposamena kontuan hartuta.

2.- Kontabilitate-informazioa ikusita eta Autonomi Elkarteko Aurrekontuaren jarraipenerako eta kontrolerako aginpidea duen sailak ezarritako arauen arabera koantifikatuko dira diru-gerakinak. Nolanahi ere, aurrekontuen finantza-ketarako erabil daitezkeen diru-

2.- En cuanto a las garantías consistentes en derechos reales sobre cosa ajena se estará a lo dispuesto en la ley de Patrimonio de Euskadi.

Artículo 14.- Depósitos

Los depósitos de dinero efectivo que se realicen como garantía en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus organismos autónomos, y los demás que deben efectuarse en un servicio de los mismos, se mantendrán en cajas y cuentas de las previstas en el artículo 5.

Artículo 15.- Gestión de garantías recibidas y de depósitos

Corresponde a los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma y a sus organismos autónomos gestores de cada expediente o competentes en la materia de que se trate:

a) reconocer los efectos correspondientes a la garantía o depósito constituido y

b) instar al Departamento a que se refiere el artículo 13.1 la ejecución de las garantías y declarar la procedencia de la cancelación o devolución de las mismas y de los depósitos.

Artículo 16.- Modelos de resguardo

Reglamentariamente se establecerán los modelos de resguardo de garantías y de depósitos.

CAPÍTULO IV REMANENTES DE TESORERÍA

Artículo 17.- Constitución

Constituyen los remanentes de tesorería de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus organismos autónomos administrativos la diferencia entre derechos reconocidos y liquidados y obligaciones contraídas, procedentes de las liquidaciones de sus respectivos presupuestos.

Artículo 18.- Funciones

1.- Los remanentes de tesorería podrán constituir un recurso para la financiación de los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos administrativos.

2.- Con cargo a los remanentes de tesorería podrán incrementarse los créditos de pago a que se refiere el artículo 20 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi y los previstos en las leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

Artículo 19.- Procedimiento de utilización

1.- La utilización de los remanentes de tesorería será autorizada por el Consejo de Gobierno a propuesta del Departamento competente en materia de seguimiento y control de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma.

2.- La cuantificación de los remanentes de tesorería deberá realizarse a partir de la información contable y de acuerdo con las normas que se establezcan por el Departamento competente en materia de seguimiento y control de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma.

zaintzako diru-gerakinen koantifikazioa egiterakoan kontuan hartu beharko da benetakoa egiterapena ekitaldian bertan gauzatzea, eta baita ordainketa zalantzazkoa duten eskubideak ere.

20. atala.- Bestelako egoerak

1.- Ekitaldia amaitzean diruzaintzako diru-gerakina negatiboa baldin bada, egokitu egin beharko da hurrengo urteko aurrekontua kopuru berberean murriztuz.

Gastuak murriztea ezinezkoa baldin bada eta baliabideen bilakaerak diru-gerakin negatiboa ekitaldi horretan zurgatzeko aukerarik ematen ez badu, hurrengo ekitaldiko aurrekontuak hasieratik superabita eduki beharko du, zurgaketa egin ahal izateko.

2.- Ekitaldia bukatzean diruzaintzako diru-gerakina hurrengo ekitaldirako onartutako aurrekontuan begiz jotzen dena baino txikiagoa baldin bada, atal honetako 1. lerroaldian ezarritakoaren arabera jokatu beharko da, dagoen aldea kontuan hartuta.

3.- Autonomi Elkarteko Aurrekontuaren jarraipenerako eta kontrolerako aginpidea duen sailak ezarriko ditu atal honetako 1. eta 2. lerroaldietan xedatutakoa gauzatu ahal izateko beharrezko arauak.

V. ATALBURUA AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIO KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

21. atala.- Administrazio instituzionalaren aldeko transferentziak eta diru-laguntzak

Autonomi Elkarteko Administrazioaren Aurrekontuan erakunde autonomiadun, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta baltzu publikoen alde azaltzen diren dotazioak honela gauzatuko dira:

a) gastu arruntetarako aurreikusitakoak, aldeztatik zehaztutako aldietarako eta aldi horiei eta guztizko dotazioari proportzionalki dagozkien zenbatekoz, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, momentu horretara arte onartutako aurrekontu-aldaketak barne.

b) kapital-eragiketarako aurreikusitakoak, doakion erakundean mota horretako ordainketei aurre egin beharra sortzen denean, erregelamenduak eskatzen dituen baldintzak bete ondoren.

22. atala.- Beste erakundeentzako transferentziak eta diru-laguntzak

Euskal Herriko Unibertsitatearentzako edo erakunde publikoentzako guztizko diru-laguntzari dagozkion fondoen ekarpenak, Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorrean sekzio burujabea daukatenak, Eusko Legebiltzarra izan ezik, aldeztatik aldietan gauzatu-ko dira eta aldi horiei eta guztizko dotazioari proportzionalki dagozkien zenbatekoz, ordura arte onartutako aurrekontu-aldaketak barne.

ma. En todo caso, en la cuantificación de los remanentes de tesorería utilizables para la financiación de los Presupuestos deberá contemplarse la realización efectiva en el ejercicio de los mismos, así como los derechos que se consideren de dudoso cobro.

Artículo 20.- Otras situaciones

1.- Si a la finalización de un ejercicio el remanente de tesorería fuera negativo, se deberá proceder a su ajuste reduciendo el Presupuesto del año en curso en la misma cuantía.

Si la reducción de gastos no fuera posible y la evolución de los recursos no permitiera la absorción del remanente negativo en el ejercicio, el Presupuesto del ejercicio siguiente deberá presentarse con un superávit inicial que permita su absorción.

2.- Si el remanente de tesorería al finalizar un ejercicio es inferior al estimado en el Presupuesto aprobado para el ejercicio siguiente, deberá procederse, por la diferencia, conforme a lo establecido en el párrafo 1 de este artículo.

3.- El Departamento competente en materia de seguimiento y control de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma dictará las normas necesarias para instrumentar lo dispuesto en los párrafos 1 y 2 de este artículo.

CAPÍTULO V TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES A ENTES DISTINTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

Artículo 21.- Transferencias y subvenciones en favor de la Administración institucional

Las dotaciones que figuran en los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma en favor de organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas se harán efectivas de la siguiente forma:

a) las previstas para gastos corrientes, por períodos anticipados y en importes proporcionales a dichos períodos y a la dotación total, incluidas las modificaciones presupuestarias aprobadas hasta ese momento, en los términos establecidos reglamentariamente, y

b) las previstas para operaciones de capital, en el momento en que surja la necesidad de acometer pagos de esa naturaleza en el organismo de que se trate, previo cumplimiento de los requisitos reglamentarios.

Artículo 22.- Transferencias y subvenciones en favor de otros entes

Las aportaciones de fondos correspondientes a la subvención global en favor de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea o a los entes de naturaleza pública con sección independiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, excepto el Parlamento Vasco, se efectuarán por períodos anticipados y en importes proporcionales a dichos períodos y a la dotación total, incluidas las modificaciones presupuestarias aprobadas hasta ese momento.

II. TITULUA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ZORPETZE-ERREJIMENA

I. ATALBURUA AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMIADUNEN ZORPETZEA

1. SEKZIOA ZORPETZEA, OROKORREAN

23. atala.- Gaitasuna

Autonomi Elkarteko Administrazioak eta erakunde autonomiadunek zorpetze-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte. Eragiketa horien produktua baliabide arrunta da, zuzenbide publikopeko diru-sarrera.

24. atala.- Muga

Ekitaldi bakoitzean Autonomi Elkarteko Administrazioan eta erakunde autonomiadunetan egin daitezkeen zorpetze-eragiketen gehieneko zenbatekoa Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorrean ezarritakoa izango da, edo, luzapenaren kasuan, Euskadiko aurrekontu-errejimenari buruzko araudian zehaztutakoa.

25. atala.- Urtebetetik gorako zorpetzea

Urtebetetik gorako zorpetze-eragiketetan, kredituaren guztizko zenbatekoa inbertsio-gastuetarako erabiliko da. Kapitala kitatzeko eta interesengatikako urteordainketen gehikinak, eragiketa guzti horietan, ez du gaitutuko eragiketa arruntengatik sortutako ekitaldiko diru-sarreraren %25a, ez eta Autonomia-Elkarte Oso-rako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremanen Legean ezarritako muga ere.

26. atala.- Ezaugarriak

Zorpetzea legezko eskudiruz edo atzerriko diruz izendatu ahal izango da, Estatuan nahiz atzerrian burutu ahal izango da, eta eragiketa eta zorrak beren baitan duten kostuak eta arriskuak mugatuko dituzte zorpetzearen epe, interes-tasa, ordezkaritza eta gainontze-koen ezaugarriak.

27. atala.- Zorpetze-eragiketa osagarriak

1.- Zorpetze-arloan aginpidea duen sailak finantza-eragiketak hitzartu ahal izango ditu zorpetzearen arriskua edo kostua bermatzeko, murrizteko edo dibersifikatzeko, zorpetzea ezartzen laguntzeko edo merkatuan horren kokapena babesteko.

2.- Aurreko lerroaldian aipatutako eragiketak honako hauek izan daitezke: kolokazio-aseguramenduak, finantza-trukeak, aukerak, gerokoak, kontrapartida- edo kitapen-konpromisoak eta beste edozein kontratu, kontratu normatiboa edo erakunde publiko edo pribatu-etikiko berrespena, jaulkipen- edo kotizazio-prezioen edo interes- edo truke-tasen arabera.

TÍTULO II EL RÉGIMEN DE ENDEUDAMIENTO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

CAPÍTULO I ENDEUDAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

SECCIÓN 1.ª EL ENDEUDAMIENTO EN GENERAL

Artículo 23.- Capacidad

La Administración de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos podrán concertar operaciones de endeudamiento, cuyo producto constituye un ingreso de derecho público.

Artículo 24.- Límite

El importe máximo de las operaciones de endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos que se puedan realizar en cada ejercicio será el establecido en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, o el previsto para el caso de prórroga en la normativa sobre régimen presupuestario de Euskadi.

Artículo 25.- El endeudamiento por plazo superior a un año

En las operaciones de endeudamiento por plazo superior a un año el importe total del crédito será destinado a la realización de gastos de inversión. La suma de las anualidades de amortización de capital e intereses, en todas estas operaciones, no excederá el 25 por 100 de los ingresos del ejercicio por operaciones corrientes, ni los límites establecidos en la ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Artículo 26.- Características

El endeudamiento podrá estar denominado en moneda de curso legal dentro del territorio del Estado o en moneda extranjera, llevarse a cabo tanto en el citado territorio como en el extranjero y reunir las características de plazo, tipo de interés, representación y cualesquiera otras que permitan el coste y el riesgo adecuados de la operación y de la deuda acumulada.

Artículo 27.- Operaciones accesorias al endeudamiento

1.- El Departamento competente en materia de endeudamiento podrá concertar operaciones financieras destinadas a asegurar, disminuir o diversificar su riesgo o su coste, a facilitar su colocación o a defender su posición en el mercado.

2.- Las operaciones a que se refiere el párrafo anterior podrán consistir en aseguramientos de colocación, permutas financieras, opciones, futuros, compromisos de contrapartida o de liquidez y cualquier otro contrato, contrato normativo o confirmación con entidades públicas o privadas, en función de los precios de emisión o de cotización o de los tipos de interés o de cambio.

28. atala. - Modalitateak

Zorpetzea zor publikoaren jaulkipenen edo kreditu-
edo mailegu-eragiketen bidez egin daiteke.

2. SEKZIOA
ZOR PUBLIKOA

29. atala. - Izen ofiziala

Balore negoziagarrien jaulkipenaren izena «Euskadi-
ko Zor Publikoa» edo «Euskal Herriko Zor Publikoa»
da.

30. atala. - Jaulkipena

1.- Zor publikoaren jaulkipena Gobernu-Kontsei-
luak onartuko du dekretu bidez, zorpetze-arloan agin-
pidea duen sailak proposatuta.

2.- Jaulkipen-dekretuak zenbateko eta burutze-
aldiaren gehieneko mugak ezarriko ditu, eta eragike-
taren beste ezaugarri batzuk zehaztu ditzake.

3.- Zorpetze-arloan aginpidea duen saileko sailbu-
ruari dagokio dekretuan adierazi ez diren jaulkipenaren
ezaugarriak zehaztea, bere aurreikuspenen barruan,
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dagokion
agindua argitaratuz.

31. atala. - Instrumentazioa

1.- Zorpetze-arloan aginpidea duen sailari dagokio
zor publikoaren jaulkipenak formalizatzea eta, hala
badagokio, egoki iritzitako balore-merkatuetan kotiza-
zio-onarpena sustatzea eta kudeatzea.

2.- Euskadiko Autonomi Elkarteko zor publikoa,
kontuko anotazioetan edo eraz aitortutako beste edo-
zein bidez egon daiteke errepresentatuta.

32. atala. - Kudeaketa eta iharduketa materiala eta teknikoa

1.- Arlo horretan aginpidea duen sailari dagokio zor
publikoa kudeatzea.

2.- Merkatuan kokatzea edo hedatzea, interesak eta
amortizazioa ordaintzea, bai eta iharduketa material
edo teknikoak burutzea ere, balore-merkatuei buruzko
araudian araututako erakunde eta prozeduren bidez
egin daitezke.

33. atala. - Bernegoiazioa

1.- Jaulkipenen baldintzetan aldaketak sar daitezke
administrazioa hobetzeko, eta, beti ere, edukitzailleen
eskubide ekonomikoen kaltetan gabe.

2.- Gobernu-Kontseiluak baimena emango du, eta
zorpetze-arloan aginpidea duen sailak (borondatez har-
tze kodunentzat) aldeztutako amortizazio-eragike-
tak, ordezkapena, trukea, bihurtzea, luzapena, finan-
tza-elkartrukea edo antzekoak hitzartuko ditu, baldin
eta, merkatu-baldintzen aldaketengatik, bidezkoa bada
finantza-kargan ekonomiak lortzea, aldiak berregitura-
tzea edo arriskua murriztea edo dibersifikatzea.

Artículo 28. - Modalidades

El endeudamiento podrá realizarse mediante emisio-
nes de deuda pública o mediante operaciones de crédito
o de préstamo.

SECCIÓN 2.ª
LA DEUDA PÚBLICA

Artículo 29. - Denominación oficial

La emisión de valores negociables se denomina
«Deuda Pública de Euskadi» o «Deuda Pública del País
Vasco».

Artículo 30. - Emisión

1.- La emisión de deuda pública será acordada por el
Consejo de Gobierno mediante decreto, a propuesta
del Departamento competente en materia de endeuda-
miento.

2.- El decreto de emisión determinará los límites
máximos de importe y de tiempo para realizarla,
pudiendo señalar otras características de la operación.

3.- Corresponde al Consejero del Departamento
competente en materia de endeudamiento, mediante
orden publicada en el Boletín Oficial del País Vasco,
determinar las características de la emisión no señaladas
por el decreto, dentro de sus previsiones.

Artículo 31. - Instrumentación

1.- Corresponde al Departamento competente en
materia de endeudamiento formalizar las emisiones de
deuda pública y, en su caso, promover y gestionar su
admisión a cotización en los mercados de valores que
considere oportuno.

2.- La deuda pública de la Comunidad Autónoma de
Euskadi podrá estar representada por anotaciones en
cuenta o por cualquier otro medio que formalmente la
reconozca.

Artículo 32. - Gestión y actuación material y técnica

1.- La gestión de la deuda pública corresponde al
Departamento competente en la materia.

2.- La colocación o difusión en el mercado, el pago
de los intereses y de la amortización, así como cualquier
ejecución material o técnica, podrán efectuarse a través
de las entidades y por los procedimientos regulados en
la normativa sobre mercado de valores.

Artículo 33. - Renegociación

1.- Se podrán introducir cambios en las condiciones
de emisión que obedezcan a su mejor administración y
que no supongan perjuicio para los derechos económi-
cos de los tenedores.

2.- El Consejo de Gobierno podrá autorizar y el
Departamento competente en materia de endeudamien-
to concertará, de forma voluntaria para los acreedores,
operaciones de amortización anticipada, sustitución,
canje, conversión, prórroga, intercambio financiero u
otras análogas, cuando por alteraciones en las condicio-
nes de mercado sea posible obtener economías en la car-
ga financiera, su reestructuración en el tiempo o la
reducción o diversificación del riesgo.

3.- Autonomi Elkarteko zor publikoaren baloreak berehala amortizatzeko baino ezin izango dira eskuratu, eta, beti ere, Gobernu-Kontseiluak aurretik baimena eman eta gero, 30.2 atalean zehaztutakoekin bat etorri.

4.- Zorpetze-arloan aginpidea duen sailari dagokio, behar izanez gero, aurreratutako diru-itzulketa onartzea eta kudeatzea, jaulkipen-baldintzek jaulkitzaileari horretarako gaitasuna ematen diotenean.

3. SEKZIOA

KREDITU- EDO MAILEGU-ERAGIKETAK

34. atala.- Onarpena eta kudeaketa

1.- Gobernu-Kontseiluak finantza-etxeekin kreditu-edo mailegu-eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du, bete beharko dituzten ezaugarri orokorrak adieraziz.

2.- Zorpetze-arloan aginpidea duen sailak kreditu-eta mailegu-eragiketak hitzartu eta kudeatuko ditu, eta kontratuan alderdi mailegariari dagozkion ahalmenak erabiliko ditu.

II. ATALBURUA

AUTONOMI ELKARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE INSTITUZIONALEN ZORPETZEA

35. atala.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak

1.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta baltzu publikoek zorpetze-eragiketak egin ahal izateko, zorpetzearen ezaugarriak, epea eta formalizazio-erregimena edozein direlarik, beharrezkoa da eragiketa horiek dagozkien aurrekontuetan edo indarreango lege-diarren arabera onartutako aldaketetan jasota izatea.

2.- Eragiketa horiek egiteko, muga bat izango da, erakundeak dituen finantza-beharrak, alegia, ekitaldian sortutako kapital-aurrekontuko eragiketei aurre egiteko. Nolanahi ere, eragiketok ezin izango dira hitzartu, erakundeak kapital-transferentziak jaso eta aurreikusitako kapital-handitzeak burutu arte.

3.- Atal honetan aipatutako zorpetze-eragiketa guztiek, formalizatu baino lehen, zorpetze-arloan aginpidea duen sailaren baimena beharko dute.

4.- Aurreko ekitaldian irekitako eta guztiz erabili gabeko kreditu-bideek ere zorpetze-arloan aginpidea duen sailaren baimena beharko dute eta aurreikusitako eragiketak finantzatzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

3.- La adquisición de valores de la deuda pública de la Comunidad Autónoma sólo podrá efectuarse con destino a su inmediata amortización y previa autorización por acuerdo del Consejo de Gobierno, con las determinaciones que establece el artículo 30.2.

4.- Corresponde al Departamento competente en materia de endeudamiento, en su caso, acordar y gestionar el reembolso anticipado, cuando las condiciones de emisión lo prevean de forma facultativa para el emisor.

SECCIÓN 3.ª

OPERACIONES DE CRÉDITO O DE PRÉSTAMO

Artículo 34.- Aprobación y gestión

1.- El Consejo de Gobierno podrá autorizar operaciones de crédito o de préstamo con entidades financieras, señalando las características generales a que deban someterse.

2.- El Departamento competente en materia de endeudamiento concertará las operaciones de crédito y de préstamo, las gestionará y ejercerá las facultades correspondientes a la parte prestataria en el respectivo contrato.

CAPÍTULO II

ENDEUDAMIENTO DE LOS ENTES INSTITUCIONALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA QUE SE RIJAN POR EL DERECHO PRIVADO

Artículo 35.- Entes públicos de derecho privado y sociedades públicas

1.- Los entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas sólo podrán realizar operaciones de endeudamiento, cualesquiera que sean sus características, plazo y régimen de formalización, en el caso de que tales operaciones estén recogidas en sus respectivos presupuestos o en sus modificaciones aprobadas conforme a la legislación vigente.

2.- La realización de tales operaciones quedará limitada a las necesidades financieras de la entidad para hacer frente a las operaciones del presupuesto de capital a devengar en el ejercicio. En todo caso, sólo se podrán concertar con posterioridad a que la entidad haya recibido las transferencias de capital y a que se hayan realizado las ampliaciones de capital previstas y en sus términos.

3.- Todas las operaciones de endeudamiento a que se refiere el presente artículo requerirán autorización del Departamento competente en materia de endeudamiento con anterioridad a su formalización.

4.- La disposición de líneas de crédito abiertas y no utilizadas totalmente en el ejercicio anterior requerirá asimismo autorización del Departamento competente en materia de endeudamiento y deberán ser aplicadas a las operaciones concretas para cuya financiación fueron previstas.

III. TITULUA
EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAK BERMEAK
EMATEKO ERREJIMENA

I. ATALBURUA
EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO
ADMINISTRAZIOAK ETA ERAKUNDE
AUTONOMIADUNEK BERMEAK EMATEA

I. SEKZIOA
BERMEAK EMATEA

36. atala.- Bermeak emateko gaitasuna

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak eta erakunde autonomiadunek, sustapen edo interes publikodun xedearekin, beste baten ordeztu ordaintzeko beharra berma dezakete, beste horrek ez badu ordaintzen.

37. atala.- Muga

1.- Ekitaldi bakoitzean emandako bermeen zenbatekoak ezin izango du Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorrean zehaztutakoa gainditu, ez eta Euskadiko aurrekontu-errejimenari buruzko araudian luzapen-kasurako aurrikusitakoa ere.

2.- Aurreko mugaren ondorioetarako, formalizatzeko unean baloreen bermatutako erantzunbeharraren printzipala hartuko da kontuan, baina ez interesak, gastuak edo trukaneurrien aldaketatik etorritako zenbatekoa.

3.- Aipatutako mugaren ondorioetarako, ez da kontuan hartuko aurretik formalizatutako beste berme batzuen liberazioa ekartzen duen berme-ematea.

4.- Berme-emakida deuseztatu, ezeztatu edo aldatzen denean, berme-emakida onartutako ekitaldiaren barruan, baimena kendu zaion zenbatekoa ez da kontuan hartuko mugari dagokionez.

38. atala.- Prozedura

1.- Gobernu-Kontseiluak, hala dagokionean, berme-emakida onartu eta aldatuko du, interesa duen sailak proposatuta.

2.- Bermea emateko eta aldatzeko, beharrezkoa izango da berme-emakidaren arloan aginpidea duen sailaren aldeko txostena. Txosten horretan, aurreko atalean aipatutako muga ez dela agortuko jasoko da, bai eta bermearen ezaugarri ekonomiko eta finantzarioak ere.

39. atala.- Onuradunak

1.- Edozein pertsona juridikoren alde, dela publikoa edo pribatua, eman ahal izango dira bermeak.

2.- Bermeen onuradunek indarreango araudiak eskatutako baldintza orokorrak eta erregelamenduz ezarritako gainontzeko baldintzak bete beharko dituzte dirulaguntzak lortzeko. Abala betetzen ez den kasuetarako berme-eskubidea sortzea ez da beharrezkoa izango emakida-akordioak zehazten ez badu.

TÍTULO III
EL RÉGIMEN DE PRESTACIÓN DE GARANTÍAS POR
LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

CAPÍTULO I
PRESTACIÓN DE GARANTÍAS POR LA
ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
Y POR SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

SECCIÓN 1.ª
CONCESIÓN DE GARANTÍAS

Artículo 36.- Capacidad de prestar garantías

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, con fines de fomento o interés público, pueden prestar garantías por las cuales se obligan a pagar por un tercero, en el caso de no hacerlo éste.

Artículo 37.- Límite

1.- El importe de las garantías concedidas durante cada ejercicio no podrá superar el límite establecido en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma o el previsto para el caso de prórroga en la normativa sobre régimen presupuestario de Euskadi.

2.- A efectos del límite anterior se considerará el principal de la obligación garantizada en el valor al momento de su formalización, pero no los intereses, los gastos ni el importe derivado de la variación en los tipos de cambio que pueda cubrir la misma.

3.- No se considerará, a efectos del citado límite, la concesión de garantías cuya formalización conlleve la liberación de otras anteriormente formalizadas.

4.- Cuando, dentro del ejercicio en que se aprobó, sea anulada, revocada o modificada la concesión de garantía, el importe cuya formalización resulte desautorizada no se computará a efectos del límite.

Artículo 38.- Procedimiento

1.- El Consejo de Gobierno aprobará y modificará, en su caso, la concesión de garantías, a propuesta del Departamento interesado.

2.- La concesión de garantía, y su modificación, requerirá informe favorable del Departamento competente en materia de prestación de garantías, relativo al no agotamiento del límite a que se refiere el artículo anterior y a las características económico-financieras de la misma.

Artículo 39.- Beneficiarios

1.- Podrán otorgarse garantías en favor de cualquier persona jurídica, pública o privada.

2.- Los beneficiarios de las garantías deberán reunir las condiciones generales exigidas por la normativa vigente para la obtención de subvenciones y las demás que se establezcan reglamentariamente. La constitución de derecho de garantía para el caso de incumplimiento del avalado se exigirá cuando lo establezca el acuerdo de concesión.

3.- Zuzenbide publikopeko erakundeak edo Autonomi Elkarteko Administrazio instituzionala osatzen duten erakundeak bermeen onuradun izan daitezke, eta ez zaie ezarriko aurreko lerroaldian esandakoa.

4.- Ezin izango zaio bermerik eman Autonomi Elkarteko Administrazioak edo erakunde autonomiaren batek bermatutako erantzunbehar bat bete ez duenari, bermatzaileari kalteak ordaintzeko beharra amaitzen ez den bitartean.

5.- Bermeen onuradunek eskatu zaien informazio eta dokumentazioa emango diote Autonomi Elkarteko Administrazioari, esaterako, urteko kontuak, kudeaketa-txostena, kontu-ikuskaritzari buruzko txostena, diruzaintza-aurreikuspenak, kontabilitate-datuak, bai eta ekonomi, finantza eta ondarearen egoera aztertzeko eta ebaluatzeko edo aurretik aipatutakoa egiaztatzeko beharrezko irizten den beste edozein ere. Aipatu administrazioak bere baliabideekin edo beste batzuenekin egin ahal izango ditu azterlan edo eskabide horiek.

40. atala.- Hartzekodun nagusiak

Autonomi Elkarteko Administrazioak edo erakunde autonomiaren batek bermatutako erantzunbeharretako hartzekodun nagusiek eskatzen zaien bermeei buruzko informazio eta dokumentazioa eman beharko diete erakunde horiei. Lankidetzat hori 49. atalean aipatutako hitzarmenetan garatu ahal izango da.

2. SEKZIOA BERMEAK EMATEA

41. atala.- Formalizazioa

1.- Bermeak ematearen arloan aginpidea duen sailari dagokio, ezargarri diren araudiak eta hitzarmenak adierazitakoaren arabera eta emakida-akordioarekin bat etorritik, honakoak egitea:

- a) bermearen hasierako formalizazioa,
- b) emandako bermeen aldaketen formalizazioa, aldatzea horiek ezin izango dutelarik hartzekodun nagusia kalteku hartzekodunaren baimenik gabe, eta
- c) bermea berrestea edo aldatzea, erantzunbehar bermatuaren baldintzak aldatzen direnean.

2.- Bermea ez bada formalizatzen emakida-akordioa egin eta urtebeteko epean edo emakida-akordioaren zehaztutako epean, emakida ezeztatutzat joko da. Gobernu-Kontseiluak epe hori luzatu dezake, epea bera amaitu baino lehen, baina horrek ez dio eragingo 37. atalean aipatutako mugari.

3.- Bermeek honako forma hauek har ditzakete: fidantza, abal, fidantzamendu, birfinkapen edo beste antzekoren bat.

4.- Bermea administrazio-agiri publiko bidez edo fede-emaila publikoaren aurrean gauzatu daiteke.

42. atala.- Edukia

1.- Zordun nagusiaren exkusio-onurari uko egitea bidezkoa da, emakida-akordioak besterik ezarri ezean.

3.- Los entes sometidos a derecho público o integrantes de la Administración institucional de la Comunidad Autónoma pueden ser beneficiarios de garantías, sin que les sea aplicable el párrafo anterior.

4.- No podrá concederse garantía en favor de quien haya incumplido una obligación garantizada por la Administración de la Comunidad Autónoma o uno de sus organismos autónomos dando lugar a que éstos hayan hecho frente a la misma, mientras no se haya extinguido la obligación de indemnizar al garante.

5.- Los beneficiarios de garantías facilitarán a la Administración de la Comunidad Autónoma la información y documentación que ésta les solicite, tales como cuentas anuales, informe de gestión, informe de auditoría, previsiones de tesorería, datos contables, así como cualquier otra que ésta considere necesaria para analizar y evaluar la situación económico-financiera y patrimonial de los mismos o para obtener evidencia justificativa de lo citado anteriormente. Dicha Administración podrá efectuar estos análisis y solicitudes con medios propios o ajenos.

Artículo 40.- Acreedores principales

Los acreedores principales en las obligaciones garantizadas por la Administración de la Comunidad Autónoma o sus organismos autónomos facilitarán a éstos la información y documentación que les soliciten sobre aquéllas. Esta colaboración podrá desarrollarse en los convenios a que se refiere el artículo 49.

SECCIÓN 2.ª OTORGAMIENTO DE GARANTÍAS

Artículo 41.- Formalización

1.- Corresponde al Departamento competente en materia de prestación de garantías, dentro de lo señalado por la normativa y el convenio aplicables y el acuerdo de concesión:

- a) la formalización inicial de la garantía,
- b) la formalización de las modificaciones de las garantías prestadas, las cuales no podrán perjudicar al acreedor principal sin su consentimiento, y
- c) la ratificación o modificación de la garantía, cuando se modifiquen los términos de la obligación garantizada.

2.- Si la garantía no se formalizase en el plazo de un año desde la fecha del acuerdo de concesión, o en el indicado por éste, se considerará revocada su concesión. El Consejo de Gobierno podrá prorrogar dicho plazo, antes de transcurrir el mismo, sin que ello afecte al límite a que se refiere el artículo 37.

3.- Las garantías podrán formalizarse bajo las denominaciones de fianza, aval, afianzamiento, reafianzamiento o cualquier otra análoga.

4.- La garantía podrá instrumentarse en documento público administrativo o ante fedatario público.

Artículo 42.- Contenido

1.- Podrá renunciarse al beneficio de excusión de bienes del deudor principal, salvo que el acuerdo de concesión establezca lo contrario.

2.- Bermea gainontzeko fidatzaileekiko baino ezin da solidario gisa formalizatu, orden- eta zatiketa-onurari uko eginez, emakida-akordioak horrela aurreikusten badu. Kasu honetan, 37. atalean zehaztutako mugari dagokionez, fidantza-emaile solidario guztiek bermatutako zenbateko osoa hartuko da kontuan.

3.- Interes, gastu eta erantzunbehar nagusiari ezarri zaizkion trukaneurriek eragin diezaieke bermeak, eta beharrezkoa izango da, kasu honetan, bermearen hasierako formalizazio-unean aldaketen arabera estaldura ezartzea aldaketei dagokienez, trukaneurri- edo interes-tasetan hasierakoei dagokienez.

3. SEKZIOA

EMANDAKO BERMEEN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA

43. atala.- Aginpidea

1.- Bermeak ematearen aginpidea duen sailak, emandako bermeen eta bereganatutako arrisku osoaren jarraipena kudeatu eta burutuko du.

2.- Emandako bermea proposatzen duen sailak laguntza emango du jarraipen-lanetan, berak edo bere menpeko erakundeek onuradunari buruz duten informazioa emanez.

3.- Bermeak ematearen aginpidea duen sailak Legebiltzarra informatuko du atal honen lehenengo lerroaldian ezarritakoaz.

44. atala.- Komisioak

Bermeak emateak Administrazioaren aldeko komisiodebengoa ekarriko du, emakida-akordioak horrela aurreikusten duenean.

4. SEKZIOA

EMANDAKO BERMEAK GAUZATZEA, ERANTZUNBEHARREI AURRE EGINEZ ZORDUN NAGUSIEN ORDEZ

45. atala.- Gauzatzea ebaztea

Bermeak ematearen aginpidea duen sailak bermeak emateari ekitea ebatziko du, beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatu eta instrumentazioan ezarritakoak burutu eta gero.

46. atala.- Hartzekodun nagusiaren eskubidearen aitorpena

1.- Aurreko atalean aipatutako ebazpena egin eta gero, edo ebazpenean bertan, bermeak ematearen aginpidea duen sailari dagokio hartzekodun nagusi bakoitzak abaldunak ordaindu ez dituen diru-kopuruak (berme formalizatuak bere gain hartuta) jasotzeko duen eskubidea aitortzea, hartzekodun horrek aurretik eskatuta.

2.- Bermeak interesei erantzuten badie, aurreko lerroaldian aipatutako diru-kopuruaren barruan, zordun nagusiaren ordaindugabeak aitortu ahal izango dira, eta ez da ezarriko, ordura arte, Ogasun publikoaren erantzunbeharren interesetarako ezarritako errejimen.

2.- La garantía sólo podrá formalizarse como solidaria, respecto de los demás fiadores, renunciando a los beneficios de orden y de división si lo prevé el acuerdo de concesión. En este caso deberá computarse, a efectos del límite establecido en el art. 37, el importe total garantizado por todos los afianzadores solidarios.

3.- La garantía podrá alcanzar a intereses, gastos y variaciones en los tipos de cambio aplicables en la obligación principal, siendo necesario, en este caso, determinar en el momento de la formalización inicial de la garantía su cobertura respecto a las variaciones en los tipos de cambio o de interés respecto a los iniciales.

SECCIÓN 3.ª

GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE GARANTÍAS PRESTADAS

Artículo 43.- Competencia

1.- El Departamento competente en materia de prestación de garantías gestionará y llevará a cabo el seguimiento de las prestadas y del riesgo global asumido.

2.- El Departamento proponente de la garantía prestada colaborará en su seguimiento, facilitando la información de que dispongan él o sus organismos dependientes sobre el beneficiario.

3.- El Departamento competente en materia de prestación de garantías informará al Parlamento de las circunstancias establecidas en el párrafo primero del presente artículo.

Artículo 44.- Comisiones

La prestación de garantías sólo conllevará el devengo de comisión a favor de la Administración concedente cuando así lo prevea el acuerdo de concesión.

SECCIÓN 4.ª

EJECUCIÓN DE GARANTÍAS PRESTADAS, HACIENDO FRENTE A OBLIGACIONES EN LUGAR DE LOS DEUDORES PRINCIPALES

Artículo 45.- Resolución de la ejecución

El Departamento competente en materia de prestación de garantías resolverá hacer frente a la misma, una vez acreditado que se dan las condiciones y realizados los trámites establecidos en su instrumentación.

Artículo 46.- Reconocimiento del derecho del acreedor principal

1.- Tras la resolución a que se refiere el artículo anterior, o en la misma, corresponde al Departamento competente en materia de prestación de garantías reconocer el derecho de cada acreedor principal, previa petición suya, a percibir las cantidades a las que no ha hecho frente la persona garantizada y cubiertas por la garantía formalizada.

2.- En el caso de que la garantía cubra intereses, se podrán reconocer, dentro de la cantidad a que se refiere el párrafo anterior, los impagados por el deudor principal hasta dicho reconocimiento, momento a partir del cual es aplicable el régimen establecido para los intereses de las obligaciones de la Hacienda Pública.

47. atala.- Erantzunbehar nagusiaren mugaegunik gabeko subrogazioa

Emandako fidantzak horretarako bide ematen badu, Administrazioak zordun nagusiaren ordezkotza har dezake, eta ez da iritsiko bermatutako erantzunbeharren mugaeguna. Horretan, lege honen II. tituluko I. atalburuko lehen eta hirugarren sekzioa ezarriko da.

48. atala.- Ordaindutako diru-kopuruak berreskuratzea

Erantzunbehar bermatuei aurre egin zaienean, dirua biltzeko prozedurari eta egoki diren beste batzuei ekingo zaie, eta, hala badagokio, bermatzaileak erabilgarri dituen berme-eskubideak gauzatuko dira.

5. SEKZIOA HITZARMENAK

49. atala.- Onarpena

Gobernu-Kontseiluak, erantzunbehar bermatuetan hartzekodun nagusiak diren edo izan daitezkeenekin hitzarmenak izenpetzeko baimena eman ahal izango du, bermeak ematearen aginpidea duen sailak eskatuta. Sail honi dagokio, era berean, hitzarmen horiek formalizatzea eta kudeatzea.

50. atala.- Edukia

1.- Hitzarmenek hartzekodun nagusien eta administrazio berme-ematearen arteko harremanak arautuko dituzte. Bermea emateko akordioa ezargarri diren hitzarmenetara igorri ahal izango da, eta hitzarmen horiek akordio horren osagaitzat joko dira bermea eman, kudeatu eta gauzatzeari dagokionez.

2.- Hitzarmenak, finantza-etxeekin izenpetzen denean, emandako bermearen ezaugarriak zehaztu ahal izango ditu oraingo edo geroako eragiketa-multzo baten arabera, gehienezko zenbateko bat jarritz. Kasu horretan, hitzarmenak emakida-akordioa eta bermea formalizatze eta gauzatzeko egintzak ordezkatzeko ahal izango ditu, hitzarmenean bertan araututako prozeduren bitartez. Hitzarmenak 39. atalaren 2. eta 4. lerroaldia betetzeko baliabideak jarriko ditu.

II. ATALBURUA AUTONOMI ELKARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE INSTITUZIONALEK BERMEAK EMATEA

51. atala.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak

Autonomi Elkarteko Administrazio instituzionala osatzen duten zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta baltzu publikoek bermeak emateko, beharrezkoa izango da arlo horretan aginpidea duen sailak horretarako baimena ematea.

Artículo 47.- Subrogación sin vencimiento de la obligación principal

Cuando lo permita la fianza otorgada, podrá subrogarse la Administración en la posición del deudor principal, sin que se produzca el vencimiento de la obligación garantizada, siendo aplicables las secciones primera y tercera del Capítulo I del Título II de la presente ley.

Artículo 48.- Recuperación de cantidades pagadas

Cuando se haya hecho frente a obligaciones garantizadas, se iniciará el procedimiento de recaudación y los demás que se estimen oportunos, con ejecución, en su caso, de los derechos de garantía a disposición del garante.

SECCIÓN 5.ª CONVENIOS

Artículo 49.- Aprobación

El Consejo de Gobierno podrá autorizar la suscripción de convenios con quienes resulten o puedan resultar acreedores principales en obligaciones garantizadas, a propuesta del Departamento competente en materia de prestación de garantías, quien los formalizará y gestionará.

Artículo 50.- Contenido

1.- Los convenios regularán las relaciones de los acreedores principales con la Administración concedente de las garantías, en general o en un determinado ámbito. El acuerdo de concesión de la garantía podrá remitirse a los convenios aplicables, entendiéndose integrantes del contenido de dicho acuerdo a efectos del otorgamiento, gestión y ejecución de la garantía.

2.- Cuando el convenio se suscriba con entidades financieras, podrá determinar las condiciones de la garantía prestada en relación con una serie definida de operaciones presentes o futuras, hasta un importe máximo. En este caso, el convenio podrá sustituir, por los procedimientos regulados en el mismo, el acuerdo de concesión y los actos de formalización y de ejecución de la garantía. El convenio dispondrá los mecanismos para el cumplimiento del artículo 39, en sus párrafos 2 y 4.

CAPÍTULO II PRESTACIÓN DE GARANTÍAS POR LOS ENTES INSTITUCIONALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA QUE SE RIJAN POR EL DERECHO PRIVADO

Artículo 51.- Entes públicos de derecho privado y sociedades públicas

La prestación de garantías por los entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas, integrantes de la Administración institucional de la Comunidad Autónoma, requerirá previa autorización por el Departamento competente en la materia.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. - Osakidetza erakunde autonomiaduna

Osakidetzak diru-sarrerak eta ordainketak egiteko kontuak kudeatu, ordaintzeko aginduak eman eta 13. atalak diruzaintza-arloan aginpidea duen sailari ematen dizkion aginpideak erabili ahal izango ditu.

Bigarrena. - Ikastetxeen autonomia finantzarioa

6.2.d) atalean zehaztutakoa ikastetxeen alde ezarritako autonomia finantzarioa gauzatzeko behar diren kontuen kaltetan gabe ulertzen da.

Hirugarrena. - Zorrak ondasunen edo eskubideen birtutez ordaintzea

1.- Euskal Herriko Ogasun Nagusiari zorrak ordaindu ahal izango zaizkio Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen arabera sailkatutako edo inbentariatutako ondasunak emanez. Zorren jatorria Administrazioak emandako bermeen gauzatzean edo Administrazioak emandako maileguetan dagoenean, zorren ordainketa bestelako ondasunak eta eskubideak emanez ere egin ahal izango da. Horretarako, Gobernu-Kontseiluko baimena beharko da aurretik eta baimen hori aparteko izarearekin emango da, zordunak haren enpresa-iharduerari kalte handiak eginda ez bada ordainketa dirutan ezin duela egin jotzen denean; kontuan hartuko da, halaber, zordunak garatzen duen enpresa-ihardueraren interes publikoa edo euskal sektore publikoak sustatutako planetan edo programetan nola sartzen den, eta baita enpresaren bideragarritasuna ere. Nolanahi ere, ordainketak zorra, interesak eta gainordainak bete beharko ditu.

2.- Ordaintzeko era hori erabili nahi duen zordunak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari egingo dio eskaera; eskaerarekin batera, ondasunen edo eskubideen azalpena eta balorazioa aurkeztuko dira eta aurreko lehenaldian azaltzen diren ezaugarriak egiaztatzen dituen dokumentazioa. Dokumentu edo datu zehatzak arauz zehaztu ahal izango dira eta baita eskabidearekin batera gutxienez aurkeztu beharreko baldintzak ere.

3.- Dagozkion txostenak ikusi eta interesatuari entzun ondoren Ondare eta Kontratazio zuzendaria interesatuaren nahiekin ados ez baldin badago, ondarearen alorrean aginpidea duen sailburuari aurkeztuko dio proposamena, sailburuak Gobernu-Kontseiluan aurkezdezan eta onartua izan dadin. Espedientea erabakitze beharrezko txostenak, eta, hala egokituz gero, behartze-indarrekoak, arauz ezarri ahal izango dira.

4.- Bost hilabeteko epean hartu beharko da erabakia, eskabidea dokumentazioarekin batera aurkeztu denetik kontatzen hasita. Epe hori pasa ondoren erabakirik hartzen ez bada, zordunak eskabidea gaitzetsi egin dela ulertu behar du. Eskabideak onespina izanez gero epe bat ipiniko da onartutako ondasunen edo eskubideen erosketa burutzeko. Onespeneko erabakiak zorren ordainketaren ondorioak eragingo ditu, eta ondasunen alta inbentario orokorrean, ondasunak eta

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. - Organismo autónomo Servicio Vasco de Salud-Osakidetza

El Servicio Vasco de Salud-Osakidetza podrá gestionar cuentas que admitan la realización indistinta de ingresos y de pagos y ejercer las competencias que el artículo 13 asigna al Departamento competente en materia de tesorería.

Segunda. - Autonomía financiera de centros docentes

Lo establecido en el artículo 6.2.d) se entiende sin perjuicio de las cuentas necesarias para el ejercicio de la autonomía financiera establecida en favor de centros docentes.

Tercera. - Pago de deudas mediante bienes o derechos

1.- El pago de deudas a la Hacienda General del País Vasco podrá efectuarse mediante la entrega de bienes culturales clasificados o inventariados conforme a la ley del Patrimonio Cultural Vasco. Cuando la deuda tenga su origen en la ejecución de garantías prestadas por la Administración o en préstamos otorgados por ésta, el pago de la deuda podrá efectuarse, también, mediante la entrega de otros bienes y derechos, previa autorización del Consejo de Gobierno, que será otorgada, excepcionalmente, en consideración a la imposibilidad del deudor de efectuar el pago en dinero sin grave quebranto de su actividad empresarial, el interés público en la actividad económica desarrollada por el deudor o su inclusión en planes o programas fomentados por el sector público vasco, así como la viabilidad de la empresa. En cualquier caso, la dación en pago deberá cubrir la deuda, intereses y recargos.

2.- El deudor que pretenda utilizar dicho medio de pago lo solicitará de la Dirección de Patrimonio y Contratación, acompañando descripción y valoración de los bienes o derechos y la documentación acreditativa de las circunstancias contempladas en el párrafo anterior. Reglamentariamente podrán determinarse los concretos documentos o datos y la forma y condiciones de presentación que con el carácter de requisito mínimo deban ser presentados junto con la solicitud.

3.- El Director de Patrimonio y Contratación, previo los informes pertinentes y audiencia del interesado en el supuesto de disconformidad con la pretensión de éste, elevará propuesta al Consejero competente en materia de patrimonio para su presentación y aprobación por el Consejo de Gobierno. Reglamentariamente podrán establecerse los informes preceptivos y, en su caso, vinculantes que hayan de ser tenidos en consideración para la resolución del expediente.

4.- La resolución deberá adoptarse en el plazo de cinco meses contados desde que se haya presentado la solicitud con la documentación que debe acompañarla. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución, el deudor podrá considerar desestimada la solicitud. La resolución estimatoria concederá un plazo dentro del cual deberá perfeccionarse la adquisición de los bienes o derechos aceptados. La resolución estimatoria surtirá, desde la fecha de entrega de los bienes y

eskubideak ematen diren egun beretik.

5.- Xedapen honetan adierazten diren ordainketari buruzko eskabideak eta erabakiak eragin berberak izango ditu diru-bilketako ihardunbidean eta derrigorrezko ordainketaren ondoriozko konpentsaziorako. Ondasunaren edo eskubidearen eskualdaketa ez bada emandako epean burutzen, diru-bilketako ihardunbideko edo kasuan ezargarria izan daitekeen ihardunbideko ekin-tzekin jarraituko da, ez baldin bada eskabidea borondatezko epean aurkeztu eta epe horretan zorra ordaindu ordura arteko berandutze-interesekin batera.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. - Zor publikoaren indarreango jaulkipenak

Lege hau, berau indarrean sartu eta gero zor publikoaren jaulkipenei dagokienez burutzen diren egintzei ezar dakieke, jaulkipenak noizkoak diren kontutan hartu gabe.

Bigarrena. - Dagoeneko emandako bermeak

1.- Lege hau, berau indarrean sartu eta gero burututako egintzei ezar dakieke, dagozkien bermeak noiz eman ziren kontutan hartu gabe.

2.- Lege hau indarrean sartu baino lehen emandako bermeen kasuan, 41.2 atalean ezarritako epea legea indarrean sartzen denetik kontatuko da, emakida-akordioak berariaz besterik aurreikusi ezean.

Hirugarrena. - Berme-prestazioaren arloko hitzarmenak

Dagoeneko birfinkapenerako izenpetutako hitzarmenek mantendu egingo dute hitzartutako indarra. Hitzarmen horiek berriro negoziatzeko edo aldatzeko ezinbestekoa izango da negoziazioa edo aldaketa horren eduki osoa lege honi egokitzea.

Laugarrena. - Erregelamendu-mailako arauen indaraldia

Lege hau garatzeko xedapenak erabaki arte eta xedapen horien bidez berariaz indargabetuak izan arte, indarrean egongo dira ondorengo dekretuak, lege honen aurkakoak ez diren neurrian:

a) Apirilaren 19ko 99/1982 Dekretua, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari eta horren aldaketei buruzkoa.

b) Urtarrilaren 24ko 13/1983 Dekretua, diru-bilketaren arloko baliabideen errejimen organikoari buruzkoa.

c) Otsailaren 2ko 17/1993 Dekretua, Euskal Autonomi Elkarte Administrazioan eta erakunde autonomiadunetan fondo arrunt aurreratuen errejimena ezarri eta arautzen duena.

derechos, los efectos del pago de los débitos que resulten cubiertos y el alta de los bienes en el Inventario General.

5.- La solicitud y la resolución sobre pago a que se refiere esta disposición tendrán los mismos efectos en el procedimiento de recaudación que los previstos para la compensación a instancia del obligado al pago. Si la transmisión del bien o derecho no se perfecciona en el plazo concedido, se continuarán las actuaciones del procedimiento de recaudación o del aplicable al caso, a no ser que la solicitud se hubiera presentado en período voluntario y se hubiera ingresado en aquel plazo la deuda con los intereses de demora devengados hasta la fecha de ingreso.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. - Emisiones vivas de deuda pública

La presente ley será aplicable a los actos posteriores a su entrada en vigor referidos a emisiones de deuda pública, cualquiera que sea la fecha de éstas.

Segunda. - Garantías ya concedidas

1.- La presente ley será aplicable a los actos que se realicen con posterioridad a la entrada en vigor de la misma, cualquiera que sea el momento en que fueron concedidas las garantías a que se refieran.

2.- Para las garantías concedidas antes de la entrada en vigor de la presente ley, el plazo establecido en el artículo 41.2 se contará desde dicha entrada en vigor, salvo que el acuerdo de concesión prevea expresamente otro plazo.

Tercera. - Convenios en materia de prestación de garantías

Los convenios de reafianzamiento ya suscritos mantendrán la vigencia pactada. Su renegociación o modificación sólo podrá llevarse a cabo si, tras la misma, todo su contenido se adapta a la presente ley.

Cuarta. - Vigencia de normas reglamentarias

Hasta que se dicten las disposiciones de desarrollo de la presente ley, que los derogarán expresamente, y en lo que no se oponga a la misma, continúan vigentes:

a) El Decreto 99/1982, de 19 de abril, sobre organización de la Tesorería General del País Vasco, y sus modificaciones.

b) El Decreto 13/1983, de 24 de enero, sobre régimen orgánico de los recursos en materia recaudatoria, y sus modificaciones.

c) El Decreto 17/1993, de 2 de febrero, por el que se establece y regula el Régimen de los Fondos Ordinarios anticipados en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Bermeak emateko baimenaren luzapen-errejimena

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintza-Dekretuaz onartutako Euskadiko Aurrekontu-Errejimenari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratuaren 128.g) atalaren erredakzioa honela geratu da:

«g) Bermeak ematea. Luzapen-aldian bermeak eman daitezke luzatutako Aurrekontu Orokorrean onartutako baldintzetan. Halaber, berme horien zenbatekoak ezin izango du gainditu Aurrekontu Orokorrean onartutakoa».

Bigarrena.— Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren eskubideak gauzatzea

Maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza-Dekretuaz onartutako Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko indarreango legezko xedapenen testu bateratuaren 40. atalaren erredakzioa honela geratu da:

«40. atala.— Gauzatzea

1.— 32. atalaren a) , d) , e) eta f) idazatietan aurreikusitako diru-sarrerak salbu, Ogasun Nagusiaren eskubide publikoak bilketarako administrazio-prozeduraz gauzatuko dira, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Diru-Bilketarako Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorriz, edo kasu bakoitzean ezargarri den zuzenbidez onartutako beste edozein prozeduraz.

2.— Borondatezko ordainketa-aldiaren barruan diru-bilketa kudeatzea Autonomi Elkarteko Administrazioaren sailetako organoei eta erakunde autonomiadunei dagokie, beren administrazio-aginpideen arabera, kontrako xedapenik ez badago, arau organikoak ezarri dituen sailaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean. Bete beharreko epean diruzaintzaren alorrean aginpidea duen sailari dagokio diru-bilketaren kudeaketa.

3.— Foru-aldundien zerbitzuek 1. lerroaldian aipatutako diru-sarreraren bilketa kudeatu ahal izango dute aldundiekin izenpetutako hitzarmenen arabera eta hitzarmenetan zehaztuta bezala. Zerbitzu horiek, era berean, indarreango araudiaren arabera Autonomi Elkarteko Administrazioari sailen edo erakunde autonomiadunenak diren aginpideak burutu ahal izango dituzte. Hitzarmen horiek Gobernu-Kontseiluak onartutako ditu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

4.— Erakunde publiko edo pribatuekin ere hitzarmenak izenpetu daitezke diru-bilketaren kudeaketa burutzeko. Hitzarmen horiek, aurreko lerroaldian aipatutako izapide berberak bete beharko dituzte eta, herri-erakunde kasuan, aginpide-eremu berdina izango dute.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Régimen de prórroga de la autorización para concesión de garantías

El artículo 128.g) del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, queda redactado de la forma siguiente:

«g) Prestación de garantías: durante el período de prórroga se podrán conceder garantías en las mismas condiciones y hasta un importe máximo igual al autorizado en los Presupuestos Generales objeto de prórroga».

Segunda.— Efectividad de los derechos de la Hacienda General del País Vasco

El artículo 40 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 40.— Efectividad

1.— A excepción de los ingresos previstos en los apartados a) , d) , e) y f) del artículo 32, los derechos de naturaleza pública de la Hacienda General se harán efectivos por medio del procedimiento administrativo de recaudación, de acuerdo con lo que establezca el Reglamento de Recaudación de la Hacienda General del País Vasco, o por cualquier otro procedimiento admitido en derecho y aplicable en cada caso.

2.— La gestión recaudatoria, dentro del período voluntario de pago, se entiende atribuida a los órganos de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus Organismos Autónomos, en relación con sus propias competencias administrativas, salvo disposición expresa en contrario, bajo la dirección y supervisión del Departamento que establezcan las normas orgánicas. Dentro del período ejecutivo la gestión recaudatoria corresponde al Departamento competente en materia de tesorería.

3.— La gestión recaudatoria de los ingresos a que se refiere el párrafo 1 podrá realizarse por los servicios de las Diputaciones Forales en virtud de convenios que al efecto se suscriban con las mismas, en los términos que contengan, pudiendo incluir el desempeño de competencias que en la normativa vigente se señalan como propias de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus Organismos Autónomos. Dichos convenios serán aprobados por el Consejo de Gobierno y publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.— También podrán suscribirse convenios con entidades públicas o privadas para el desempeño de la gestión recaudatoria. Dichos convenios seguirán los mismos trámites y, en el caso de entidades públicas, podrán tener el mismo alcance que los referidos en el párrafo anterior.

5.- 1. Ierroaldian aipatutako eskubideen ordainketaren beharra geroratu edo zatikatu daiteke, erregelamenduz ezarritakoaren arabera. Diruzaintza-arloan aginpidea duen sailak ezarritako zenbatekotik gorako zorren ordainketaren gerorapena edo zatikapena gauzatzeko, beharrezkoa izango da bermea jartzea, arauz salbuespena aurreikusten denean edo zorduna herri-administrazioen bat edo zuzenbide publikoaren menpeko erakunderen bat denean izan ezik. Gerorapena edo zatikapena onartzea diruzaintza-arloan aginpidea duen sailari dagokio.

6.- Eskubide pribatuak antolamendu juridiko pribatuaren arabera gauzatzeko dira».

Hirugarrena. - Garapena

Gobernuak lege hau garatzeko eta ezartzeko xedapenak emango ditu.

Laugarrena. - Indarrean sartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hileko lehen egunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko azaroak hamazortzi.

Lehendakaria,

JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Zk-5860

AGINDUA, 1996ko azaroaren 14koa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta beroni atxikitako Erakunde Autonomoek kudeaturiko datu pertsonalen fitxategi automatizatuak hedatzen eta araupetzen dituen.

Datu pertsonalen tratamendu automatizatu araupezen duen urriaren 29ko 511992 Lege Organikoaren 18. artikulua ezartzen du datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak sortu, aldatu edo ezabatzeko, xedapen orokor bat argitaratu beharko dela tokian tokiko aldizkari ofizialean eta sortu edo ezabatu nahi diren fitxategien edukia zehaztu beste leerroaldi batean.

5.- La obligación de pago de los derechos a que se refiere el párrafo 1 podrá aplazarse o fraccionarse, en los términos establecidos reglamentariamente. La efectividad del aplazamiento o del fraccionamiento de pago de deudas superiores al importe que establezca el Departamento competente en materia de tesorería requerirá la constitución de garantía, salvo los casos en que se prevea reglamentariamente su dispensa o el deudor sea una Administración Pública o ente sometido al derecho público. La concesión de aplazamiento o fraccionamiento corresponde, libremente, al Departamento competente en materia de tesorería.

6.- La efectividad de los derechos de naturaleza privada se llevará a cabo de acuerdo con el ordenamiento jurídico privado».

Tercera. - Desarrollo

El Gobierno dictará las disposiciones para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

Cuarta. - Entrada en vigor

La presente ley entrará en vigor el día primero del mes siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a dieciocho de noviembre de mil novecientos noventa y seis.

El Lehendakari,

JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Nº-5860

ORDEN de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se amplían y regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los Organismos Autónomos adscritos al mismo.

El artículo 18 de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, de regulación del tratamiento automatizado de los datos de carácter personal, establece que la creación, modificación o supresión de los ficheros automatizados de las Administraciones Públicas que contengan datos de tal naturaleza se ha de hacer mediante disposición general publicada en el diario oficial correspondiente, fijando a continuación en el párrafo segundo el contenido de las disposiciones de creación o de modificación de los ficheros.